

Hizkera - soinua dala ta

Madrilgo Unibersidadean «Ciências Físicas» ikasten negoala elektrizidazko lehenengo cursoko laboratorioan ikaskide batek daltonismoa, koloretako itsutasuna, zeukan. Korrientea hartzeko zulo pareak kolorez bereiztuak zeuden: «alterna de 120 vóltios» gorritz markatua, «contínua de 100 vóltios» urdinez, «alterna de 240 vóltios» oriz, eta abar. Ikaskide harek korriente mota bat behar zuanean, «Ze kolore da hau?» galdetzen zidan. Behin «Gorria» erantzun niola, «Gorria? Lehenago berdea esan didazu» esan zidan. «Gizona! Kolorekin ni ez naiz konfunditzen inoiz! Eztaukat daltonismorik» erantzun nion. Bainan alperrik. Beretzat inork ere ezituan bereizten koloreak seguru seguru. Beretzat begiak ozta oztan eta makinek nekez jasotzen zituzten kolorekin egiten diran bereizkuntzak. Hauxe ekarri dit gogora, baten batek entonazioaz egiten diran bereizkuntzak nekez aditzen dirala esaten duala irakurtzeak.

‘ Eztago, nik dakitala, koloretako itsutasunaren antzeko gortasunik soinuetarako, bainan bai soinuak bereizten ezituan jende asko, ongi irakatsia izan arte. Curso hontan encuesta bat egin dut lehenbiziko cursoko ingleseko ikasleen arte «Príncipe de Viana» institutoan. Aldizkari hontan Gernikako entonazioaz idatzi nuan lanean agertzen diran antzeko entonazio markak zer adierazten duten ongi azaldu, ta ezertarako entrenamenturik gabe, 22 ingleseko esakera liburutik kopiatzeko eskatu ostean, neuk irakurri ta beurek entzun ta markak ipintzeko eskatu nien. Hona encuestatik atera nuana: Ehuneko hamarrek markatu zituzten esakera guztiak oso ongi, ia akatsik gabe. Ehuneko hogeitau hamarrek erdiak baino gehiago ongi. Ehuneko hogeiak erdiak ongi eta erdiak gaizki. Ehuneko berrogeiak dana oso gaizki. Kopiatu arazi nizkien esakeretan, ongi markatzeko probabilitadeara $1/27$ ’tik $1/4104$ ’ra doa. Ezin beraz edonola markatu ta erdiak ongi irtetzea. Beste alde batetik, hamalau urteko ikasleak ezagutzen dituenak badaki nola konfunditzen diran gauza guztietan, nota bikainak ateratzen ohituta dagoenak izan ezik, oso ongi jakin ezkerero ere. Hemendik atera diteke % 60 dirala entonazioa ongi bereizten zutenak eta % 40 asieran entonazioa bereiztu ezin zutenak. Beste alde batetik, nere esperientziak esaten dit ia % 100 izango dirala, cursoaren azkeneko erdira heldu orduko, markak oso ongi irakurten jakingo dutenak.

Makinen laguntzaz errez errez ikus ditezke entonazioaren bereizkuntzak. Esate baterako, mikrofono bat eta oszilografo batekin. Bainan hau alperriko lana izango litzake, gauza hauekin gabiltzan guztiok oso ongi ta klaru klaru bereizten baitugu dana belarri hutsez.

Beste alde batetik, nola pentsatu hunelako gaiez lan egiten duten munduko jakintsuak uren gaineko bitsetan dabiltzala? «Lingüística aplicada» delakoan dana da praktikua, dana da zerbaiterako gauza, eztago kamelorik. Asko dira honelako markekin beuren liburuak argitaratzen dituzten idazleak. Esate baterako, Clifford H. Prator, Jr. (University of California), Audrey L. Wright (Luisiana State University), Robert Lado & Charles C. Fries (University of Michigan) eta beste asko ipar-amerikanuen arte. Inglesek beste marka batzu erabilten dituzte, merkeagoak moldiztegirako bainan ez hain klaruak ohiturarik eztuen irakurlearentzat. Hogeitaz baina gehiago da amerikanuen markak liburuetan agertzen dirala, eta ingelesez ikasteko liburuak onenetan ikus ditezke. Liburu hauek oso praktikuak dira ingelesez azentu onarekin ikasi nahi duenarentzat. Nere lana ere, euskeraz azentu onarekin ikasi nahi duenarentzat egina dago. Gauza praktikuak eztira hutsaren hurrengoak eta entonazio-markak irakurtzeko errezak ezpalira laister baztertuko lituzke ingelesezko irakasleek eta ingelesezko ikasbideak edo metodoak idazten dituztenek. Nere euskerazko ikasleek unibertsidadean ere nere metodoan ipintzeko eskatu didate. Ministerio de Educación y Ciencia delakoak, BUP estudiantzeko onartu dituen liburuen arte (libros aprobados por el Ministerio) asko dira honelako markekin agertzen diran ingelesezko metodoak.

Euskerazko entonazioa aldakorra dala, edozeinek esango du. Zenbat gutxiago jakin, hainbat aldakorragoa. Bainan aldakorra gauza bat da eta nolana hiko beste bat. Inglesezko entonazioa USAn bezela, edo Canadian bezela, edo Australian bezela, edo New Zeland'en bezela, edo Ego-Inglaterran bezela, edo Ipar-Inglaterran bezela, bai ta Eskozian edo Galesen edo Irlandan bezela egin diteke (eta oso alde gutxi dago entonazio mota guzti hauen arte) bainan ingelesez ikasten duten frantzesek, griegoek, italianoek edo espainolek, ingelesez egiten dutenean «azentu txarrekin» egingo dute, baldin beuren hizkuntzetako entonazioarekin, hau da, gorago aipatutako entonazioaren bat imitatu gabe, hasten badira. Espainola ere berdin mintza diteke nahiz Aragoi, nahiz Gaztela, nahiz Andaluzi, nahiz Venezuela, nahiz México, nahiz Chile edo Argentina edo Cuba'ko entonazioarekin, bainan ez Suezia edo Alemania edo Frantziakoarekin. Euskeraz ere, nahiz Bizkaiko, nahiz Gipuzkoako, nahiz Baztango edo Lapurdiko, nahiz edozein euskelgitako hizkera-soinuz mintza diteke, bainan ez erdel entonazio batekin.

Euskeldun berriak ezta egiten euskeraz, *euskera-berriz* baizik. Izen diferentek gauza diferentek adierazten dituzte. Entonazioan datza diferentzirik

HIZKERA-SOINUA DALA TA

nabarmenatariko bat. Euskeraz ondo ikastea nahi duenak eztu hartu behar helburutzat euskeldun berri bat izatea, euskeldun bat izatea baizik. Ni euskerazko irakasle bat naiz ta ez tut nahi euskera-berrizko irakasle bat izatea. Hona zertarako egin nuen (beste lan askoren arte) FLVn argitaratu nuan lana Gernikako entonazioa oinarritzat hartuta.

J. BASTERRETxea

